

Korrika 19 aurreko igandean amaitu zuen bere ibilbidea, milaka lagunek eskuz esku ekarri dute lekukoa Bilbora. Komite Internazionalistek bere kilometroa burutu genuen, Errondabide Kultur elkartea eta 7katu gaztetxearekin batera. Gure zatian, Somera Kalean, Maryamek eraman zuen lekukoa. Maryam Bilbon bizi den errefuziatu kurdua da eta emozio handiz eraman zuen lekukoa. Ohi bezala munduko borroka desberdinen ikurrak eta ohiak izan ziren baina aipamen berezia eta omenaldia egin nahi genion herri kurduaren borrokari, eta hizkuntza kurduari duela gutxira arte debekatuta egon dena eta gaur egun ere jazarpen onartezinak pairatzen dituena. Maryamekin batera Kurdistanen aldeko ohiuen artean egin genuen korrika, baita euskara eta hizkuntza kurdua omenduz. Biji berxwedana Euskara! (gora! eta bizitza luzea euskarari!), Gora Kurdistan eta kurduera!.

Hamaika Telebistak grabatutako bideo honetan ikus daiteke Korrikaren ibilbidea Bilbon zehar. 32:00 minutuan gure kilometroaren irudiak agertzen dira.

Kurdistango hedabide honetan ere ohiartzuna izan zuen Korrikak eta gure kilometroa.